

Laudion, 2022ko urriaren 7an

Laudioko Udalak Antzokia eraikitzeko eskaintza bat jaso du

Eskatutako baldintza guztiak betetzen badira, Udalak lanak esleituko ditu eta obrak urtea amaitu baino lehen hasiko dira.

Hainbeste denboraz itxaron den eta LEKU, "Laudioko Ekintza eta Kultur Unea" izenez ezagutuko den Laudioko Antzokiaren eraikuntza gero eta hurbilago dago; izan ere, dena ondo badoa, urtea amaitu baino lehen audioarrek obren hasiera ikusiko dute.

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu da, eta Laudioko Udala Altuna y Uria eraikuntza-enpresaren, lehiaketara aurkeztu den enpresa bakarraren, eskaintza baloratzen ari da. Eskaintzak eskatutako baldintza guztiak betetzen baditu, Laudioko Udalak udazken honetan bertan lanak esleitu eta hasi ahal izango dira. Lanek 24 hilabeteko iraupena izango dute, eta, beraz, espazio berria 2024. urtearen amaieran inauguratu daiteke.

"Joan den uztailan, LEKUko, gure Antzokiko, lanak gauzatzeko lehiaketa hutsik geratu zen, eta prezioak berrikusi behar izan genituen. Orain eskaintza hau dugu. Hori mugarri historikoa da gure herrian, eta errealitate bihurtzetik gero eta gertuago dago", adierazi du Ander Añibarro alkateak.